



DEIALDIA, FAMILIA-LANGILEAREN ETA LANALDI PARTZIALEKO FAMILIA-LANGILEAREN 34 PLAZA LEKUALDATZE-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO, IRUÑEKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZURA ARITZEKO.

PROZEDURAREN AMAIERA, PLAZAK ESLEITZEA ETA JABETZA HARTZEA.

Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako Alorreko zuzendariak honako ebazpen hau eman zuen 2026ko abuztuaren 31an:

Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak 2025eko apirilaren 9an emandako ebazpenaren bidez – 2025eko 80. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, apirilaren 24koan– deialdia onetsi zen lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko familia-langilearen eta lanaldi partzialeko familia-langilearen 34 plaza, Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko.

Giza Baliabideetako zuzendariaren 2025eko ekainaren 13ko ebazpenaren bidez onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onetsi zen, eta 2025eko 132. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 3koan, argitaratu zen.

2026ko urtarrilaren 16an, kalifikazio-epaimahaiak merezimenduen baremazioaren behin betiko emaitzak argitaratu zituen, eta plaza hutsak hautatzeko ekitaldirako deialdia egin ondoren, 2026ko otsailaren 18an hautaketa horren emaitza argitaratu zen Udalaren webgunean.

Ondoren, 2026ko ekainaren 12an, 2-403100-196 zenbakidun plaza esleitu zitzaion MARÍA EUGENIA PAGOLA ASCUNCE andreari, zeinak ez baitzuen plazarik hautatu ezarritako epean, zerbitzu aktibora behin-behineko atxikipenarekin itzultzeagatik parte hartzera behartuta zegoen arren. Esleipen hori 2026ko ekainaren 16an jakinarazi zitzaion interesdunari, eta webgunean argitaratu zen.

Hori guztia kontuan hartuta, EBATZI DUT:

1. Iruñeko Udalaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura aritzeko familia-langilearen eta lanaldi partzialeko familia-langilearen 34 plaza betetzeko lekualdatze-lehiaketa amaitzea, jarraian xedatutakoarekin bat:

ABIZENAK ETA IZENA	PLAZA	ALORRA	ATXIKIPEN-EREMUA	ARAU BIDE JURIDIKOA
ABAIGAR AZPILICUETA, ESTHER	2-403100-232	GIZARTE EKINTZA	EEAL	LAN ARAUBIDEA
ALDASORO AZKARATE, AMAIA	2-403100-112			
ALFARO GONZALES, GLORIA ANGÉLICA	2-403100-164			
AZPILICUETA SEGUÍN, BEATRIZ	2-403100-231			
BUSTOS MORA, CHARITO TERESA	2-403100-171			
CUADROS RODRÍGUEZ, SORAYA	2-403100-160			
DÍAZ SÁDABA, AMAIA	2-403100-156			



ABIZENAK ETA IZENA	PLAZA	ALORRA	ATXIKIPEN- EREMUA	ARAUBIDE JURIDIKOA
GARCÍA BLANCO MARÍA DEL MAR	2-403100-204			
GILÉS OLAYA, ANA BELÉN	2-403100-198			
GONZÁLEZ DE LANGARICA SESMA, NURIA ESTHER	2-403100-143			
HERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, ANA ISABEL	2-408200-122			
HERRERA RODRÍGUEZ, ZULMA ELIZABETH	2-403100-195			
INDURAIN BERRADE, M ^a CARMEN	2-403100-214			
MARTÍNEZ ASIAIN, M ^a PILAR	2-403100-159			
MORÁN VILLAMAR MARTINA	2-408200-108			
PAGOLA ASCUNCE, MARÍA EUGENIA	2-403100-196			
PINEDA ARMIJOS, MARÍA NERY	2-403100-162			
PRIMO BARBARIN, M ^a ROSARIO	2-403100-135			
PURIZAGA PÉREZ, KATTY	2-403100-188			
RUIZ MONTES, ANA VICTORIA	2-403100-190			
SARAGURO CALLE, RORY	2-403100-206			
ZALBA IBÁÑEZ, MARÍA SOLEDAD	2-403100-205			

2. Zehaztea plazez jabetzeko eguna 2026ko urriaren 1a izanen dela.

3. Ebazpena Udalaren webguneko deialdiaren fitxan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman dadin agintzea.

4. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Ebazpen honen aurka honako errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da:

a) Berraztertzeko errekurtsioa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2026ko abuztuaren 31an. Giza Baliabideetako Alorreko zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.